

Euskararen dei larria

GURE EUSKARA, gure aurre-
kara, milaka urtetan irau duen euskara badoakigu. Gaur haren alde ezer, eragin handiko zeozer, egiten ez badugu badoakigu... betiko!

Bi Estatu indartsuk, Frantziak eta Espainiak, ito beharrean edukitzeaz gainera, Euskal Herriko se-meeek «triunfalismo» batek eraginda begiak itsu dituzte.

Frantziako eta Espainiako Estatuak sortu zira-nez geroztik Euskal Herriak eta honen hizkuntza euskarak ez dute gauza onik izan. Euskarak, baz-tertua izateaz gainera, jazarpenak izan ditu. «Agur!» hitza bera esatea ere debekaturik egon izan da inoiz Bilboko kalean. Euskaraz hitz bat esatea zigortua izan da betidanik eskoletan. Gaur egun Espainiako Konstituzioak hauxe dio: «El castellano es la lengua oficial del Estado. Todos los españoles tienen el deber de conocerla». Derrigo-rruz «español» izan beharrean garenok, derrigorrez jakin behar dugu, bada, «castellano» hori. Eta Espainiako Konstituziopean dagoan Autonomi Estatuak beste hau dio: «El euskera (...) tendrá como el castellano carácter de lengua oficial en Euskadi (hau da: hiru probintzitan) y todos su habitantes tienen el Derecho a conocer y usar ambas lenguas». Euskadin, bada, erdaraz jakitea beharturik gaude, «Deber» dugu; euskara jakitea, oster, «Ez dago ino-berharturik. Nafarroan, berriz, «Amejoramiento-pean» gaizkiago. Eta Ipar Euskal Herrian, berdin-tsu.

Ito beharrean daukate, bada, euskara bi Estatuak. Hori gutxi balitz «triunfalismo» batek eraginda, harropuzkeria batek eraginda, ametszko munduan bizi gara euskaldunok. Euskal telebista, euskal irratiak, euskal egunkaria, euskal aldizkariak, ikastolak, ikastegiak, «EGA» tituludun irakasleak, A, B, D.» ikastereduko ikasleak, euskaraz kale izenak, euskaraz herri izenak... ditugula eta lasai-lasai bizi gara euskaldunok. Gainera euskal politi-kariak, euskal Administrazioak, euskara matema-tika bihurturik, honenbeste *Mila* «EGA» tituludun irakasle ditugula ari zaizkigu deiadarka, ez dakit zenbat *Mila* «D» ikastereduko ikasle... Azkenean, «!ah! !e! retroceso del euskara ya ha cesado!» esa-

teko. Baina euskararen egiak egoera bestelakoa da; euskara, ezpainetan darabilgun euskara bizia, atzeraka doa.

25 urtez, euskararen alde lanean dihardugunok, eta aurretik ere beste 25 urtez euskararen egoeraren lekuko izan garenok badakigu zer diogun. Eta esandakoa egiatzatzeko euskal herrietara, euskal herrietako eskoletara jotzea besterik ez dugu.

Lehenago, haurrek nahiz eta eskola barruan gaztelera erabili, jolasaldian euskaraz egiten zuten; gaur, ordea, nahiz eta eskola barruan euskara erabili, jolasaldian gaztelera egiten dute.

Lehenago mendeetan euskara lurrez gutxituz joan bada, mende honetan, mende honetako gure egu-netan, zahar eta gazteen arteko katea etenez doa.

Euskara gero eta gutxiago, gero eta traketsago egiten dela begibistakoa da. Hori ikusten ez duena itsu dago.

Itsu, gauza askotan gaude euskararen munduan, itsu eta gor. Esate baterako:

— Lurrez eta bizilagunez hain txikia den Euskal Herri honetan euskara, euskalkietan banandurik dugu euskara, indartzeko, *Batu* egin behar dela ikusten ez duena itsu dago.

— Hain urri eta murriztuta, hain indarge eta landu gabe, hain ahul eta makal dugu euskara, sendotzeko, *Alfabetatu* egin behar dela ikusten ez duena itsu dago.

— Alfabetatzea eta batua ikastea ez dela gauza bera eta bata bestearen aurretik egin behar dela ikusten ez duena itsu dago.

— Haurrak etxeko, herriko, berezko euskara esko-lan lantzen ez badu, gero hitz egitean, alfabetatu-gabeko eran egingo duela eta batuan egin nahi izan dezanean, euskaldunberri eran egingo duela eta azkenean erdarara joko duela ikusten ez duena itsu dago.

— Ingeles hizkuntza jakin nahi duenak, eskolan hasi-masiak ikasi ondoren, Ingalaterrara jo behar duenez, halaxe euskaraz jakin nahi duenak euskal herrietara, euskara bizia egiten den lekura, jo behar duela ikusten ez duena itsu dago.

— Ezpainetan berezko euskara duen betiko eus-kaldun batek, prestaketa batzuk eginda, «EGA»-ko tituludun euskaldunberri batek baino euskaraz hitz

egiten hobeki irakatsi lezaakeela ikusten ez duena itsu dago.

— Euskara batua bideratzekoan bizkaiera (Euskal Herrian zabaldu dagoen euskara) ez dela aintzakot-zat hartzen eta gipuzkera eta batua praxian gauza bera direla ikusten ez duena itsu dago.

— Bizkaieraz egiten duen herriak (Gipuzketa eta Araban ere gutxi-asko bizkaieraz egiten dela go-goan harturik) berezko euskara hori baztertu eta horren ordez batua edo gipuzkera egingo duela uste duena itsu dago.

— Irakaskuntzak eta Komunikabideek (Euskal Telebista, Euskadi Irratia, euskal egunkaria, euskal aldizkariak... euskara batua edo gipuzkera beti-beti eta leku guztietan erabilirik, bizkaiera lotsagarri-zko beheko mailan jartzen dutela ikusten ez duena itsu dago.

— Bizkaieraren arazoa bizkaitarra dela soilik eta bizkaitarrek bakarrik konpondu behar dutela inork uste badu itsu dago.

— Eta abar...abar eta abar. Itsu dagoenak ken dezala, bada, begiak estaltzen dizkion zapia eta ikus dezala egia den ala ez ondo-rengo hau:

— eguneroko bizitzarako behar-beharrezko ez den hizkuntza,

— mengel, indarge eta gaurkotu gabe dugu hiz-kuntza,

— gutxi, modu askotara, gaizki eta nolana-hi da-rabilgun hizkuntza,

— beste hizkuntza (frantsesa nahiz espainola) in-dartsuarekin batera erabili behar dugu hizkuntza,

— legeak itota daukan hizkuntza honek ba al du etorkizunik? Ba al du irtenbiderik?

Bai, guk nahi badugu. Baina...

— ba al dute euskal politikariek eta Administra-zioak euskara aurrera aterateko benetako boronda-terik, asmo sendorik?

— ba ote du herriak berak?

— ba ote dugu guk geuk, zuk eta biok?

JOSE ANTONIO RETOLAZA
KILIKILI-KO ZUZENDARIA

Kondaira gogoratuz

aturik bizitzeko eskubidea». Matxinatuek ongi zekiten lepoa arriskatzeko zutela. Eta asbetetz eutsi zioten britaindar kontra-erasoari: 62 hilik eiretar-ren artean, eta 130 britaindar soldadu okupatzail-en artean.

Zazpi abertzalek sinatu zuten beren izen-deitura osoez Askatasun Agiria. Pearse bozeramailea ez zen zaharrena: 37 urte. Connolly sozialista aber-tzaleak 48 zituen; eta Thomas Clarke preso-ohiak (16 urte luze inperioaren gartzelatan egonak) 58 urte. Bazkoko jaikitzea ez zen ume-purtzilen jokoa izan.

Matxinatuak arrestatzean, Londres ez zen epel-keriatan ibili. Eta handik oso egun gutxitara 16 buruzagiak afusilarazi zituen. Postetxea erasotze-rakoan zauritutako Connolly, zutik egoteko gauza ez zela bide, aulki batean exerita tirokatu zuten.

Afusilaketak eta ondoko egunetako zanpaketa basak, larrugorrian utzi zituen Redmond eta gai-

nerako eiretar «konstituzionalistak». Baina hauek, geroztik, esku-estu joan ziren abertzaleen kontra britaindar aparatoaren bat-eginik.

«Aberri» taldekoak (gero «Jagi-Jagi» taldearen sortzaile izango zirenak, Eli Gallastegi-ren ingu-ruan) osoki zauskatu zituen afusilaketa lazgarriak. Eta Pearse, Connolly, Clark, Plunkett, eta gaine-rako hildakoen jokabide miresgarriak hunkiturik, Euskal Herrian ere gure «Bazko Eguna» ospatzea proposatu zuten; kristau tradizioan Bazkoari bai-tagokio Pizkunda. Eta 1932, «Jagi-Jagi» koak PNVtik botatzeko erabakia jadanik burukideek hartua zutelarik, «Aberri Eguna» ospatu zen lehe-nengo aldiz.

Geroztikakoa ongi ezagutzen du irakurleak.

XILLARDEGI
IDAZLEA

BERRIAK ZIRI



NOAM CHOMSKY
EL INDEPENDIENTE
1991-IV-1

«**Biolentziaren efikaziak mugitzen du munduko politika, eta EBBBek dute hor lehen tokia»**



V. ORTEGA LLORCA
DIARIO 16
1991-IV-1

«**Gobernuak ez zuen Legea bete «GAL kasuan»**



EMILIO BARBERA
DEIA
1991-III-31

«**Unibertean egin dudana lanari buruz irainak entzuten ditut, baina ez kritika serioirik»**



JOSE ANTONIO URBIOLA
EL CORREO ESPAÑOL
1991-III-31

«**HB isolatzeko politika lehengo kontua da EAJn»**

© Olariagak

ZAKILIXUT

